

Droga legalizatuta gero zer?

Legalizatu? Droga-salketa legez yare, libre, utzi?

Gu beste bide batetik goaz. Irakurri-berri duzun izenburu ori ez da gurea. Euskalerriko periodista edo izparringilari batena da. Larriturik dago galde zorrotz ori. Guk emango diogu erantzuna. Droga-salketa yare utzi ezkerro, droga-saltzailleak pozik. Sendotu egingo bait zaie negozioa, askoz droga geiago salduko dutelako, eta ondorioz askoz diru geiago irabaziko dutelako.

Ori besterik ez bait da drogaren arazo guztia: Negozioa. Droga saltzailleak ez dire, bokazioz, gaizkilleak. Ez dabilte droga-saltzen inori gaitz egiteko. Dirua irabazteko dabilte. Beren asmoa ez da gaitz egitea. Soilki, dirua IRABAZTEA da. Orregatik, gu beste bide batetik goaz. Bide berria da gure bide ori. Gu ez goaz drogaren aurka. Negozioaren aurka goaz gu. Ta bide berri ori lendarizko aldiz «DIARIO DE NAVARRA»k oiukatu du. Euskerazko orri ontan aintzuzen.

Gure bide au ez da besteak bezalakoa. Zearo ez berdiña baizik. Gure elburua ez dire ba drogadiktoak. Gure elburua gizartea da, soziedade. Drogadiktoak drogatik salbatzeaz utzi gabe, guk Gizartea salbatu nai dugu drogatik. Droga bait da gaur gizarteak duan gaitzik makurrera eta desgazirik aundienak sortzen dizkiona.

Gizartearen salbamena lortu aal izateko, guk ez dugu droga yareki, libre, saldu aal izaterik eskatzen. Guk droga doan, jdebalde! ematen dugu. Orrela, negozio bat besterik ez dan drogaren arazoa, biuririk ematen ez duen negozio biurtuko litzake, eta bertanbata batbatean ezabaturik geldituko litzake.

Droga, doan emana, baiñan ez nolana. Droga drogadiktoen artean banatzeko, toki bereizi batzuk prestatuko lirake uri eta erri aundi guztietan: drogabanategiak. Eta toki oiek, mediku, sikologo eta orrelako jende berezien eskuetan egongo lirake.



Ori da gure bidea. Bide berria. Aurreneko aldiz «Naparroako egunkari» onek bere Euskerazko orrian munduari aurkeztua, presentatua. Ikusiko duzu nola urte asko baiño len gure bide ori egunkari guztiek lau aizeetara ozenki oiukatuko duten. Baiñan oiuketa ortan aurrenekoa izen izetearen aintza ez dio inork Naparroako egunkari oni kenduko.

Arrisku aundiak ditula bide berri onek? Bai. Ez noski txikiak:

- Debalde duten ezkerro gazte asko asi ditekela droga probatzen,

«arriskura iristen geranean, droga-banategietan ori jakineraziko digute, eta orduan droga utziko dugu» esanez. Kontuz ibilli bearko dute drogabanategietako buruzagiek.

- Gure gazteek, gero debalde izengo dutelako esparantz, naiz diru asko kosta droga erosten asi ditezke.

Bi oiek dire nik ikusten ditutan arriskurik larrienak. Naparroa'ko Apez jaun askok orri au irakurtzen dutela badakigu. Orre ba, Apez Jaunok. Beste arriskurik ikusten ba'duzute, eta arrisku berririk ikusten ez ba'duzute ere, zuen iritzia jakin nai dugulako, idatzi eizguzute, arren eta arren (Diario de Navarra. Para «Nafar-izkuntza»), gu aurrera goaz-ta.

Guk ez dugula, asmo-dugunik egiteko, bear aña dirurik? Ez noski. Baña ori Estaduak eta Autoritateek egin bear dute. Gu ez gerala inor, Estadua ta Agintariak ortara bultzateko? Ori uste al duzu? Begira: 3 dire España'ko Tribunalik garaianak, garrantzitsuenak. 2 edo 3 dire España'ko Juezik ezagutuenak eta eraginmen aundikoenak. Bat da España'in notizi-ajentziarik indartsuena. Ba 3 tribunal oietako Lendarikietatik bat, 2 edo 3 Juez oietako bat, eta notizi-ajentzi ortako iru buruzagirik aundienetako bat, gurekin daude. Eta gure ekin-tza onen reglamentu edo araudia prestatzen...jberaiek ari dire! Ez al dut arrazoirik au aurrera dijoala esaten dutanean? Aintza ordea, ekin-tza au asi izatearen aintza, «DIARIO DE NAVARRA»rena izengo da beti.

Apaiz Jaunok, mediku, juez, eta irakasle jaunok, Naparroa'ko erritar guztiok, jarren eta arren! jmesedez!, zuen iritzia nai ditugu. Jainkoaren izenean, drogak ondaturik dauden millakaen izenean, oraindik drogara eroriko diren millaka neska-mutillan izenean, gaixo errukarri oien familien izenean, zuen iritzia guri bidaltzeko eskatzen dizuegu.

Latiegi'tar Bixente

Jesus'en Biotza ikastetxea Bera'n

«Maitasunaren Aizpadi» delako lekaime elkartek urte aunitz daramazki Bera'n lanean. Garai batean erriko neska geyenak joaten zitzaizkien, baita ere ingurukoak bertan lo egiten zutela. Orduan eziketa osoa erderaz zen. Gaiñera euskaldun lekaimeak atzerrira bidaltzen zituzten eta erdeldunak Euskalerrira. Orregatik etzegoen euskal girorik Bera'ko ikastetxean.

1978'garren urtean gauzak aldatzen asi ziren; euskara ikasgai bezala iru' orduz asteen sartu zuten. Asiera ortan Diputazio'ko euskeraren arduraduna, Xole Erbiti datorkie argibideak ematera.

Aldaketa aundiak datozkie 1988'garren urtean; Jesus'en Biotza Ikastetxean «EREDU -D» sartzen dute. Nai dutenentzat aukera; gai geyenak euskaraz, berte batzuek erdaraz. Aur ttipiak euskaraz asten dire eta gero erdarara pixkanaka sartzeko. Lan aundia artu zuten aldaketa ori egiten. Bi irakasle euskal filologia egitera bidali zituzten Ikastetxe Nagusira.

Aldaketa guzti oyen garaian Sor Karmen Oyarzabal, Bera'ko alaba egondut zen, bertan, zuzendari bezala (1986-1992).

Nafarroa'ko Gobiernoko euskal sailleko zuzendaria, Juan Jose Ekisoain etorri zitzaien erranez: «Lendarizkoak zerate Nafarroa'n lekaimeen ikastetxetan euskara gayetan». Nafarro osoan Bera'ko Jesus'en Biotza IKASTETXEA AU-RRENA izateak zerbait erran nai du.



Aldaketa guzti oyen eragillea, Sor Karmen Oyarzabal izan da. Bera'ko alabaiteruaren alaba da, 1919'garren urtean jaioa. Lekaime bezala bertan sartu zen ta Galizia'ra bidali zuten. An ogeita amazapi urte eginta, ama zaintzera Bera'ra itzuli zen, 1978'garren urtean. Gaur ikastetxean 218 ikasle dituzte denetara; 72 -D Ereduan 146

-A eredu. Aurrak berriz iru urte-tik amalau urte arte artzen dituzte. Euskal irakasleak sei dauzkate; borztz Nafarrak, iru Beratarak. Euskal txapelketetan, bai ipui eta eseri sarietan agertzen dire emengo ikasleak. Euskara berriz ederra egiten dute. Aur ttipien gelan sartu nintzen eta denak euskaraz abesten ari ziren.

Gaueskola dute gurasoentzat; amar ama eukara ikasten ari dire, baita erdua emateko Sor Karmen Oyarzabal. Jesusa Odriozola Azpitaiarrak, bertako lekaimeak aunitz laguntzen du euskaraz elizlangintzan; sendotza taldeak, Meza Nagusian, irakurgayak eta abestiak antolatzen, batez ere Dornaku'ko elizatzxoan.

Aipatu nai dugu berri polit bat; Jesus'en Biotza ikastetxea 1858'garren urtean asi ziren egiten. Eragilleak, Maria Bautista Ugalde'k, azken naian baldintza bat ipini zuen; erriko baserriko aurrentzat kristauikasbidea emateko agindua, dena euskaraz eta ortaroko beti euskal lekaime batzuek eukitzeko naia.

Erran bearra ere; Bera'ko lekaimen zuzendari nagusia España osorako, gaur egun Sor Juana Elizondo da, berez Arantz'arra, era bat euskalduna. Eskatera bat egingo nioke gogotik: Euskalerrira euskal lekaimeak bidaltzea, euskara maite dutenak. Mesede ederra egingo luke orrekin, bai Euskalerriri, baita Elizari.

Latzaga



Antzitoneko trinketeak 100 urte

Antzitoneko Trinketeak aurten betetzen ditu 100 urte, 1894 garren urtean eraikia. Ehun urte buruak ongi ospatzeko besta eder bat antolatu dute hilabete honen 20-ean. Goizeko 11etan bi pilota partida. Bat eskuz Iparraldeko lau pilotarien artean eta bertzea pale-taz baztandar pilotarien artean Txapelketa Finala jokatu du. Ondotik bazkaria trinketean be-rean. Pilotazale aunitz bilduko dira pilota maite dutenak denak elkar-tasun ederrean bildurik.

Antxitoneko Trinketearen kon-daira interesgarria da. Apirilean nere idaz lanetan erakutsi nituen Antxitoneko Trinkete honetan ehun urte ahuetan zenbat ikuskizun an-tolatuak izan diran eta agertu ere desafiozko partidak, bertsolari jaialdiak, antzerki, bazkari, dan-tzaldi, omenaldi, pilota txapelketak eta bertze billera gehiago ere ospatu direla 100 urte hauetan.

Trinketea xuritu eta apaindu dute ederki eta bai telatua ere berritu. 100 urteburuak ospatzeko Trinketea xukun xukun agertzen zaigu.

Trinketean jokatu diren partida ineteresgarrienetako bat, 1922-garren urtean jokatu zena aipatuko dugu. Dongaitz anaiak alde batetik eta Leonis eta Artze

bertzetik, denak Iparraldekoak. Desafiozko partida zen eskuz eta diru aunitz jokatu. Partida hau guzien gañekoa omen zen, nik orduan zazpi urte nituen eta oroitzen naiz zenbat jende bildu zen Antxitonean eta denak Iparraldekoak. Kanpoan hainbertze jende gelditu zen trinketean ezin sartuz barnean lekuri ez zelakoz. Dongaitz anaiak irabazi zuten.

Parida horri buruz bertsoak ere egin zituzten «Elizondoko partidaren gainean» izenburuakin. Hamabi bertso horietatik, bi agertuko ditut:

Mila bederatzi ehun eta hoita bigarrena,

Urte hau aunitzentzat zer oroit-zapena,

Irabazi dutenek plazer galtzailiek zer pena,

Beti lanjerian baita irriskatzen dena.

□ □ □

Dongaitz bi anaiak Leonis eta Arze,

Partidaren finitzen lanak izan tuzte,

Gaztieke ere galtzerik ez baitzu-ten uste,

Azkenian zaharrek irabazi dute.

M. Izeta

Berri ona

Jesukristo gure Jauna, diren guztien Errege

«Zu judutarren errege al zera? (Jn. 18, 33-37)

MUNDU onetako erreinuak, giza-indarrean oiñarritutako erreinuak, alegia, agintea dute eusgarri bakarra. Eta norbait indar orren edo aginte orren aurka jeikitzen baldin bada, espetxea edo kartzela izango du zigor-saria.

Agintea ezezik, sona edo fama, dirua eta aundi-naia ere gogoko izaten dute erri eta nazioetan agintzen dutenak. Agintariak buruan dutena ezarri nai izaten dute erriaren eta erritarren iritzia kontuan artu gabe. Menpekoek burua makurtu bearrean aurkitzen dira. Erritarrek ez al dute eskubiderik?

Lur onetako agintariak erregetza bere esku artzen dute; geienek, beintzat. Eta ori gertatzen denean erriari pentsatza galerazi egiten zaio, sormena ukatu eta itza ukatu.

Erligioari dagokionean ere beste orrenbertze gertatzen da. Atzera bista botatzea naikoa dugu gertatu izandakoa gogoratzeko. Katolikoa ez zena gaizki ikusia zen, gizartetik apartatuta, baztertua.

Oso errege gutxi izan dira erriaren alde bizia eman dutenak. Bizia erriaren alde emateko gai izan direnak banaka batzuk dira. Ortarako erria maitatu egin bear da, erriaren alde bizi, erria aintzakotzat eduki.

Gutxi oien artean Jesus izan da erria maitatzeaz gain bizia eman izan duena. Eta erregetza ori ez da ulertzen, konpreni eziña da. Koroaren ordeaz arantz eta errege makillaren ordeaz, giltzak.

Nola adierazi federik gabeko gizon-emakumei Kristo guztien errege dela? Nola esan gaurko gizarteari Errege bakarra Kristo dela? Nola jakinerari gaurko gaztediari gugatik bizia eman duenaren menpeko izan bear dugula?

Posible al zaigu pakean, baretasunean, xume eta apal, Jaungoikoaren Erregetza onartzea? Kristoren erregetzak ez du mundu onetako erregetzarekin zerikusirik.

Gure gizarteak egoera tinkoa eta iraunkorra eskatzen du. Egia, pakea, justizia... Jainkoak eman dizkigun doaiak gu guztiontzat izan-go dira. Ez gera inor inori doai oiek ukatzeko eta galeratzeko.

Au da gure zeregiña: an-emen Jainkoaren mezua eta erreinua zabaltzea eta otsegitea. Mundu obetzea da gure lanik nagusia eta agian, zailena. Etsipenik gabe egin dezagun lan.

Artzalluz'tar Joxemari